



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-10-03

VIIURTEA 1.792 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

FELIX IRAZUSTABARRENA GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEKO LEHENDAKARIA

«Aurten Andoni Egañari txapela kenduko diotela uste dut»

ALEGIA Eskualdeko lau bertsoariak Txapelketa Nagusian maila ona eman dezaketela dio Irazustabarrenak

HASIERA Irazu, Agirre, Mendiluze eta Muñoa ariko dira txapelaren bila; gaur hasiko da txapelketa Zestoan 2



Eraikinaren eta bere inguruaren babesa lortuko luke izendapena lortuko balu udaletxeak. A. IMAZ

KULTUR-ONDAREAREN MONUMENTU IZENDAPENA LORTZEAR

BERASTEGI Hilabete honetan jakingo dute herritarrek Berastegiko udaletxeak izendapena izango duen; bailara suspertzeko balioko du 6



Plazatik herriko elkartera kalejira egin zuten. I.T.

Irurarrak festan murgildu dira berriro, bi eguneko atsedenen ostean

JAIK Amezketako Ugarte auzoan eta Iruran ekitaldiz beteriko asteburua izango dute 4

•BERRIREKIERA•

berogas

Bainugelak, sukaldeak, berokuntza, gasa, energia berriztagarriak

Gremioen koordinazioa

San Frantzisko, 10 • TOLOSA • Tel.: 943 653 307

www.berogas.com

E Elkarrizketa
FELIX IRAZUSTABARRENA › Gipuzkoako Bertsosale Elkartearen lehendakaria

Kultura » Gaur arratsaldean, 17:30ean hasiko da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia; eskualdeko lau bertsolarik hartuko dute parte oraingoan.

ESTI EZEIZA

Lau urte eta gero, gaur hasiko da Bertsolari Txapelketa Nagusia. Lehendabiziko kanporaketa 17:30ean hasiko da, eta Zestoan izango da. Bertan ariko dira bertsoetan: Iñaki Gurrutxaga, Jone Uria, Miren Artetxe, Oihana Bartra, Uxue Alberdi eta Odei Barroso. Gertu-gertutik biziko du txapelketa garrantzitsu hau Felix Irazustabarrena alegiarrak. Bestalde, eskualdeko lau bertsolarik hartuko dute parte bertan, Aitor Mendiluzek, Amaia Agirrek, Jexux Mari Irazuk eta Unai Muñoak.

44 bertsolaritatik 4 eskualdekoak dira, kopuru polita ezta?

Proporzioan ongi dago. 44tik 4 Tolosaldekoak izatea, kopuru ederria da.

Eta, nola ikusten dituzu hauek?

Ondo, denetik daukagu. Txapelketako hautagaitik hasi eta finalean egongo direnetera. Denek dute horra iristeko aukera. Dagoeneko ez daukate zein maila duten erakutsi beharrik. Bakoitzak bere bidea egin beharko du baina ongi ikusten ditut.

Datuei erreparatuta, ikus daiteke, parte-hartzaileen ia erdia gipuzkoarra dela. Zergatik?

Zuzendaritzak bere garaian erabakitzen du zein proportziotan joan behar duten herrialde bakoitzetik. Horretarako, aurreko txapelketetako datuak aztertzen dira, hasieratik gorakada nortzuk eman duten ikusiz, eta herrialde bakoitzak garai horretan duen maila begiratu. Horrela erabakitzen du zuzendaritzak, zenbat bertsolarik joan behar duten herrialde bakoitzetik. Betiere, bermatuta, bakoitzeko bi egongo direla gutxienez. Beraz, aurten, horrela egokitu da. **Bertsolari kopuruak ere eragina al du?**

Baita horrek ere. Arrazoi asko daude. Txapelketa hasi baino lehen erabakitzen da zein proportziotan joan behar duten, eta horretarako gauza asko begiratzen dira: uesteko bertso maila, aurreko txapelketan, probintzia bakoitzeko zenbat bertsolarik egin duten aurrera, herrialde bakoitzeko bertsolari kopurua; inguru bakoitzeko bertso mugimendua...

Daturen batek harritu al zaitu?

Bereziki inork ez, baina ziurrenik, gero eta jende gazteagoak hartzen du parte txapelketan. Hala ere, hau ez da oraingo gauza, azken txapelketetako joera baizik. 40 urtetik beherakoak dira denak, bat ezik,



NEREA URBIZU

«Nire iragarpenen arabera kenduko diote txapela Andoni Egañari»

eta horrek esan nahi du, txapelketarako gogoia eta irrika horiek dutela.

Bertsolarien adina bezala, bertsozaleena ere jaisten ari da ezta?

Gero eta gazte gehiago inguratzen dira, baina hori modu berean dioa. Bertsolariek gazteak dira eta hauek publiko gaztea erakartzen dute. Joera orokorra da hori, gu hasi ginenean ere bertsozalezen, gazteak ginen.

Aurreko urteetan baino parte-hartzaile gehiago dira aurten.

Txapelketa hasi aurretik hartzen diren erabaki horietako batizan da hau ere. Aurten, Txapelketa Nagusia egiteko nahiko maila ona zegoela iritzita, bertsolariei aukera gehiago ematearren, saio bat gehitzea erabaki genuen. Honela, sei bertsolari gehiago sartu dira hasieratik. Beti pentsatu da, puntako bertsolariek bildu behar dituela Txapelketa Nagusiak, eta ikusi da, punta gero eta zabalagoa dela.

Txapelketako bertsozalea eta plazetakoa berdina al da?

Ez, hala ere, ziurrenik, plazetan dabilenak, txapelketa ere jarraituko du. Txapelketak, beste elementu batzuk ere badituen, beste

jende mota bat ere inguratzen da. Horrek ekartzen du, gero eta bertsozaleasun gutxiago duen jendea etortzea, eta honek ere erakarri egiten du. Saiotan ibiltzen dena bai da bertsozalea, baina esaterako, BECen bilduko diren 13.000en

Txapelketa Nagusia egiteko nahiko maila ona zegoela iritzita, saio bat gehitzea erabaki dugu

arte, asko egongo dira urtean saio bakarra entzuten dutenak nahiz 40etara joaten direnak.

Txapelketa batetik bestera, bertsolaritza, bertsoak egiteko modua eta abar, aldatzen al da?

Bai, pentsatzen dut aldatzen dela. Egokitu egiten da garaian garaiko gaietara eta moduetara. Bertsolaritzak zer bait lortzen badu, hori da, aldatzea hori. Duela 20 urteko txapelketak begiratu gero, desberdintasun handiak topatuko genituzke, baina trantsizio bat eman delako da. Ez da kolpe handirik egon.

Bertsoaren inguruan 13.000 pertsona biltzea pozgarria da, ezta?

Bertsozaleasunaz gain, elementu gehiago ere sartzen dira hor. Ordu asko dira han, eta noski, bertsoa gustatu behar zaio hara joaten denari, baina baditu beste osagai batzuk ere. Euskaraz egiten den ekitaldi garrantzitsu bat da, festa ere bada... Hauek norberaren bertsozaleasunari gehitzen zaizkio eta horregatik horrenbeste jende biltzen da.

Aurten, Bertsozale Elkartearen helburuetako bat bertsozaleasuna bultzatzea da.

Txapelketako helburuak jartzean, hauetako bat nabarmendu nahi izaten da. Txapelketak helburu askori erantzuten die. Duela lau urte ere, zenbait pauso eman ziren erdalguneari keinu bat egiteko. Aurten ere, xede hori hor dago. Hala ere, asmo nagusia da txapelketa bertsozaleei eskaintzea eta ahalik eta kalitate handiena ematea.

Andoni Egaña bosgarren txapelaren bila joango da aurten. Berri berak eramango al du?

Nire iragarpenen arabera ez, kenduko diote. Eta hor dator txapelketa honek duen interesa. Txapelketa kendu diezaiokete eta kenduko diote, baina ahal horretan, txapela

» TOLOSALDEKO LAU BERTSOLARIEI BEGIRA

■ **Aitor Mendiluze.** Txapelerako kinielan, denek sartu dute hautagai bezala. Bertsoak egiten ona da. Makina bat da horretan, baina era berean, sentimendu eta emozio asko sortzeko gai da.

■ **Amaia Agirre.** Finalean sartzeko hautagaietako bat da. Duela lau urte ere hor ibili zen, eta progresio handiko bertsolaria izan da beti. Pausoak aurreraka ematen, eta beti ikasten ari dena. Denetik egiten du eta aukerak badauzka.

■ **Jexux Mari Irazu.** Finalean bitan egon da. Beraz, kiniela gehienetan, BECera iritsiko diren artean dago, batzuetan, txapelaren bila joateko ere bai. Bizia, azkarra eta bizkorra da. Hala ere, beste gauzak ere egiten ditu.

■ **Unai Muñoa.** Berria da txapelketan. Gipuzkoakoan oso ongi aritu zen, eta asko dauka eskaintzeko. Hasiera batean, finalerdietan sartzeari izango da bere helburua, baina, ezusteko asko eman ditzakeen bertsolaria da. Bizia da, kantatzeko modu oso ona dauka, eta komunikatzen daki.

kentzeko lan horretan bost edo sei bertsolari sartuko nituzke. Hauen egunaren arabera erabakiko da. Egun ona izanez gero, bost edo

Asmo nagusia da txapelketa bertsozaleei eskaintzea eta ahalik eta kalitate handiena ematea

seik aukera baitute kentzeko, eta horrek asko irekitzen du txapelketa.

Nortzuk uste duzue dutela txapela hori Egañari kentzeko aukera?

Aukera denek dute, 44ak. Baina hor izango dira orain arte puntan ibili diren horiek. Aitor Mendiluzetik hasi eta, Amets Arzallus, Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbiera. Horiek aurrera zerranda beheraka joango da, baina horietako edozeinek du aukera. Bestalde, ezustekoak beti egoten dira, eta aurten ere agian egongo da.

Ezusteoren bat egongo al da?

Ezusteokoak beti egon daitezke, baina neurri batean. Txapelketan ateratzen diren guztiak kontrastatuta daukate beraien kalitatea, eta ezusteko izugarria ez litzateke izango.

Egaña zuzenean finalera sartuko da. Hau abantaila handiegia ez al da?

1993tik aurrera, uste dut, beti egin izan dela horrela. Abantaila handia da, besteek txartela lortu behar dute, eta berak, txapela. Baina neurri handi batean aurretik irabazi du abantaila hori. Gainera ez da justua, txapelketa irabazi duena, hurrengoan hasieratik abiatzea. Beste hainbat txapelketetan ere horrela egiten da.

G Gutunak

Ramoni

Ez da gure asmoa ohiko gorespen eta laudorioak egitea gure lagun Ramon de Anta zenari. Besterik gabe, Ramonen familiari gure atsekabea adierazi nahi diogu.

Dena den, esan nahi diegu, era berean, plataforma honetako ki-deentzat, sortu zenetik, pribilegio bat izan dela Ramon ezagutzera. Gehientsuetan ados ginen berarekin eta beti prest agertu zen lagunak defendatzeko, euren ordezkari izendatu zuten lagunene alde egiteko. Aurrean zuenari, edozein izanda ere, goikoa zein behokoa, gauzak diren bezalaxe esateko ez zuen inongo eragozpenik.

Gaur egun geroz eta zailagoa da aurkitzea horrelako jendea, beren denbora zati bat eta energia puska bat gizarte osoari eskaintzen diena. Ildo horretatik, Ramon beti prest izan dugu, bere zirkunstantzia eta mugen gainetik, laguntzeko, esku emateko, ordezkari zen kolektiboarentzat ezer onik ekarriko zuela uste zuen guztietan.

Plataforma honetako kideon iritziz, Ramonen lana eta ekarpena funtsezkoak izan ziren Gerontologiko berria eraikitzeko, Diputazio-ak Udalaren laguntzarekin lapurtu zigun haren ordezkaria altxatzeko. Horregatik guztiagatik eskerrak ematen dizkiogu publikoki Ramoni.

Ramon, gogoan izango zaitugu.
Juan Manuel Zaldúa. Zahartzaro duina, gerontologikoaren aldeko plataformaren izenean.

Antolatzaileek eskerrak ematen dizkie Garagardo Azokan parte hartu dutenei

Aisia » XI. Garagardo Azoka ospatu zen urrian, eta hainbat lagunek boluntario gisa lan egin zuten bertan.

ERREDAKZIOA

XI. Garagardo Azokako antolatzaileek, hau da, Tolosako Judo Taldeak, Tolosa CF nesken txirindulari taldeak, Tolosa Igarondo Urpekoak eta Tolosaldea IK'Tk eskerrak eman nahi dizkiete hainbat eta hainbat laguneri. Hasteko, «lana boluntario gisa egin duten guztiei, gazteei espreski osolan polita egin zutelako, kartelarekin laguntzen duten guztiei eta ekintzak antolatzen lagundu digutenei». Horretan aritu dira aurtengoan, Xake taldea, Udala Musika Banda, Galtzaundi Euskara Taldea, Oriako txirindulari eskola eta Tolosaldeko Arraun Kluba. Baita, Tolosaldeko Udala ere.

Asteleheneretik martxan da Samaniegorako Lagunbusa



Ekainean egin zuten lehendabiziko froga eta orain martxan jarri dute. N.L.

Hezkuntza » 40-45 haur inguruk oinez egiten dute orain eskolarako bidea; gaztetxoaren autonomia bultzatzeko bidea da.

ESTI EZEIZA

Joan den ikasturte amaieran, Aste Berdearen baitan egin zuten Lagunbusa izeneko ekimenaren froga, eta orain, Samaniego ikastetxe-koek martxan jarri dute. Honela, asteleheneretik, haurrek ikastetxe-rako bidea oinez egiten dute, taldean. Dagoeneko 5 eta 12 urte bitarteko 40 haurrek eman dute izena, eta Samaniego ikastetxeko zuzendaritzakoak gustura daude jasotako erantzunarekin.

Ekainean froga egin zutenean Laskorain eta Samaniegoko ikasleek hartu zuten parte. Baina oraingoz, Samaniegokoek bakkarrik abiarazi dute proiektua.

Tolosako erdigunetik ikastetxera oinez

Triangulo plazatik abiatzen da Lagunbusa goizeko zortzi eta erdientan, Samaniegorantz joateko. Bidean lau geldialdi egiten ditu. Lehendabizikoa Berdura plazan, bigarrena, Gorriti plazan, eta hurrengo biak, Larramendi auzoan. Ibilbidearen inguruko informazioa ikastetxean bertan topatu dezakete ikasle eta gurasoek.

Gaztetxoek txarteltxo bat darumate bakoitzaren datuekin. Hau da, izen-abizen, telefono zenbaki, Lagunbusa hartzeko geltokia eta abarrek. Ekimen honek bultzatu nahi duen gauzetako bat, haurren autonomia da. Baina aldi berean,

adina kontuan hartuta, segurtasunari ere garrantzi handia ematen diote ikastetxeetako arduradunek. Hori dela eta, haurrekin batera zenbait helduk, boluntarioki egiten dute bidea. Esaterako, hauek arduratzen dira, gaztetxo guztiak al dauden zenbatzeaz. Bestalde, ibilbidean zehar geratzen diren denda eta tabernetako arduradunekin ere hitz egin dute Samaniegokoek, eta Lagunbusaren laguntzaile dira. Honela, haurren batek arazoren bat izanez gero, gune hauetara jo dezake laguntza eska. Saltoki eta taberna hauek pegatina bat dute kanpoaldean, haurrek identifikatu ahal izateko.

Bi aldiz egiten dute bidea Samaniegoko ikasleek. Goizean, ikastetxera joaten, eta arratsaldean, etxera itzultzeko. Eguerdietan zerbitzurik ez jartzera erabaki dute, gehienak eskolako jangela geratzen baitira bazkaltzen.

Ekainean, froga egin zutenean, bixera bana eman zien haurrei, identifikatu ahal izateko, eta Mikel Izagirre, ikastetxeko zuzendariaren hitzetan, «orain, negura begira, zira batzuk banatuko ditugu zurrerik». Bestalde, toki bat girotuko dute, bustita etorriz gero edo, oinetakoak-eta aldatu ahal izateko.

Ingurugiroa zaintzea eta osasuna hobetzea helburu

Lagunbusa, lagunartean, modu dibertigarrian ikastetxerako bidea egiteko modua da. Honek hainbat onura ditu. Alde batetik, kotxearen erabilera alde batera utzita, kutsadura murrizteko balio du. Haurrak, gurasoekin batera, kotxean eskolara joateko ohitura dute, eta honela, auto pilaketa handiak iz-

ten dira ikastetxe inguruetan. Gainera, ingurumenari kalte handia egiten zaio. Lagunbusarekin hau ekidin daiteke.

Behin eta berriz entzuten den esaldia da, gaur egungo haurrak ez direla oinez ibiltzen. Hala, egitasmo honek hau aldatuaz nahi du. Gaztetxoaren osasunaren mesedegarri ere izan nahi du Lagunbusa. Hauek, egunero pixka bat behintzat oinez ibiltzera behartuz. Gainera modu atsegina eta dibertigarrian. Eskolara oinez joatean, erabat esna iristen dira klaseetara.

Lagunbusa ekimen irekia da, hori dela eta, ez dute zertan egunero bertan joan ikasleek. Beraiek aukeratu dezakete zeinetan joan, eta zeinetan ez. Bestalde, ibilbide osoa egin beharrean, zati bat bakarrik egin dezakete. Ikasturtea aurrera doan ahala, gaztetxoek gero eta autonomia handiagoa hartuko dute, ibilbidea ezagun egingo baitzaie. Hori da azken batean, Lagunbusa egitasmoaren xedeetako bat, gurasoekiko dependentsia hori murriztea.

Iriarte jotetxea

Etorri TXERRIKUME ERREA probatzera!

Tel.: 943 683 078 • BERROBI

hitza Info
ere Kilometroetan
Urriak 4 - Donostian




udazken-neguko
arropa
eta
osagarri

salgai

(Alejandria)
4. gunea



harpidedunentzat
prezio bereziak: ekarri
zure harpidedun txartela!



K Kirol jarduera

Gaur, larunbata, Tolosan Areto futbol

■ Usabalgo beheko kantuan, 20:30ean, lurraldekako 2. mailako partida: Laskorain-Uda Orly.

Saskibaloia

■ Kadete nesken partida izango da Usabal kiroldegiko goiko kantuan 12:00etan: TAKE-Carnicas San Marcial.

Futbola

■ Berazubi futbol zelaian, 16:30ean, jubenilen liga nazionala: Tolosa CF-Alaves.

■ Usabalgo futbol zelaian, 10:00etan, infantil txikien partida: Tolosa CF-Zarautz.

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:30ean, kadeteen ohorezko mailako partida: Tolosa CF-Real Sociedad.

■ Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, preferente mailako partida: Tolosa CF-Martutene.



Atsedena eta gero, berriro festara

IRURA ■ Bi eguneko atsedenen ostean, atzo ekin zioten berriro ere luruan festari. Musika eta jakiek alaitu zuten arratsaldean plaza, izan ere, kalejira egin zuten Loatzo musika eskolakoei, eta txistor jatea ere egin zuten. Playback-a izan zuten ondoren eta La banda del jefe Bigun taldea ondo-

ren. Gaur, berriz, goizean haur parkea egongo da, eta eguerdian ezkundek sokadantza dantzatzuko dute. Gero guztiak joango dira bazkaltzera. Arratsaldean, pailazoak eta Udaberriren dantzaldiaz gozatzeko aukera izango da. Gauean, berriz, musika eta dantza izango dira. **IT**

'Que les pasa a los hombres' filma izango da gaur ikusgai Leidor aretoan

ERREDAKZIOA

Que les pasa a los hombres filma izango da gaur ikusgai, Leidor aretoan, 19:30ean, eta *Mapa de los sonidos Tokio*, berriz, 22:30ean. Bihar *Azur eta Asmar* gaztetxoentzako filma izango da emango dute, 17:00etan. *Que les pasa a los hombres* filma 19:30ean izango da ikusgai, eta 22:00etan, *Mapa de los sonidos Tokio*. Etzi, astelehenean, bestalde, ikuslearen eguna izango da, eta *Mapa de los sonidos Tokio* filma emango dute.

Zuzenketa. Aiz Orratz-Veleta eta Kabi Alai elkarrekin 75 urte betetzen dituztela eta datorren igandean, hilaren 11n, mendi irteera antolatuko dute, Uzturrera. Atzoko HITZAren alean igande honetan izango zela jartzen zuen, baina datorren igandean izango da. Barkatu eragozpenak.

Zurezko jokoekin jolas egiteko aukera izango da gaur, kalean

Tolosa ■ Tombs Creatius taldekoak Plaza Zaharrean egongo dira goizean, eta arratsaldean, berriz, San Frantzisko ibiltokian.

ERREDAKZIOA

Tolosako Komertzio foroak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, martxan jarritako ekimenaren baitan, beste emanaldi batez gozatzeko aukera izango da gaur, Tombs Creatius taldearen eskutik.

Zurezko jolas tresnak ekarriko dituzte Herrialde Katalanetako artista hauek. Lehendabiziko saioa 10:30etik 13:30era izango da,



Adin guztiei zuzenduriko jokoak egiten dituzte. **HITZA**

Plaza Berrian, eta bigarrena, 17:00etatik 20:00etara, San Frantzisko ibiltokian.

Tombs Creatius egurrezko jolasak egiten dituen taldea da. Lau urtetik gora daramatzate adin guztietako gazte nahiz helduentzat kale jokoak proposatzen. Jostailuak egurrezkoak dira, material naturala baita, guregandik gertu dagoena, eta aldi berean, «naturarekiko oreka mantenduz, gauzak sortzea ahalbidetzen duena». Bestalde, kalea jolasteko toki bezala ikusten dute, «hau horretarako izan baita beti». «Betidanik, gizarteratzeko gunea eta jendearen aisirako puntua izan baita, nahiz eta ohitura hau galzten ari den», gaineratzen dute.


Proposatzen dituzten jokoek jatorri oso desberdinak dituzte. Jolas zaharrak berreraikitzen dituztela esan daiteke, joko batetik ideia berriak sortzen baitituzte.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Remi Ayestararen omenaldia antolatatu duten kideetako batzuk. HITZA

Urriaren 10ean egingo diote omenaldia Remi Ayestarani

Villabona » Remi Gogoan ekimena sortu dute eta «Remi maite izan duen oro» gonbidatua dute omenaldian parte hartzera.

ERREDAKZIOA

Bi hilabete igaro dira Villabonako alkateorde zen Remi Ayestararen, herriko jaietako azken egunean, hau da, uztailearen 31n, Ertzaintzarekin «liskarra» izan eta bihotzekoak jota hil zela. Herria «saminez beteta» dago ordutik, eta Ayestararen lagunek eta hurbilekoek, urriaren 10erako «omenaldi bereo» prestatu dute.

Esker ona bere lanari

Remi Ayestaran maite izan duten hainbat herritarrek eta lagunek bat egin dute eta Remi Gogoan ekimena sortu dute.

«Remi herri honen alde lanean ari zela hil zen eta horretan eman zuen bere azken hatsa», azaldu dute ekimenekoek. Orain Villabonako herriak, berriro ere, Ayestarani «bere esker ona eta maitasuna» agertu nahi dizkio omenaldi honekin. Herritar, norbanako, talde, erakunde... guztiak gonbidatu dituzte omenaldian parte hartzera; «Remi gu guztiona da uztailearen 31az geroztik. Remi ez baita hil gure bihotzetan», azpimarratzen dute Remi Gogoan ekimenerik.

Herri omenaldia

Herri omenaldia 19:00etan hasiko da Villabonako Erreboten Plazan. Oholtza gainetik, pertsona eta talde ezberdinetako hainbat kide pasako dira. Zintzarriak astinduz,



Remi Ayestarani egin zaion herri omenaldiko kartela. HITZA

Donostiako Alde Zaharreko Zantantzarrak izango dira. Ondoren, Herriko elkarte eta koadrila ezberdinak igoko dira eta baita bertsolariak ere. Bestalde, ohorezko agurra dantzatuko zaio eta Musika Eskolako hainbat irakasle abestu egingo dute.

» OMENALDIA

■ **Urriak 10.** Villabonako Erreboten plazan izango da, 19:00etan hasita.

■ **Parte-hartzaileak.** Donostiako Alde Zaharreko Zantantzarrak, herriko elkarte eta koadrila ezberdinak, bertsolariak, ohorezko agurra, musika eskolako hainbat irakasle abestu egingo dute, Burgosen ikaskideak, unibertsitateko kide eta Izquierda Castellanoako kideak. Villabonako ezker abertzalearen esker ona, Villabonako Udala, Onddo Gazte Asanblada, bere lagun eta koadrila, herriko danborrada *Billabonako martxarekin* eta Lain musika taldea.

Burgosen bere ikaskide izandakoak, unibertsitateko kideak eta Izquierda Castellanoako ere Villabonako herriak antolatatu duen omenaldian parte hartu nahi izan dute. Villabonako ezker abertzaleak ere bere esker ona adieraziko du ekitaldian. Eta Villabonako Udala ere ekimen honi bere babesa eman dio eta beraien presentzia ere han izango da. Onddo gazte Asanbladako lagunek ere parte hartuko dute. «Eta bukatzeko, ezin falta, bere lagun eta koadrila, herriko danborradak eta Villabonako martxa». Giroa pixkabat alaitzeko, herrikoak diren Lain taldekoak izango dira abesten. Omenaldian zehar, pantaila handian Ayestararen bizitzaren ibilbidea jasoko duen proiektzioa emango dute.

Omenaldian aurkezle lanak berri, Euskadi Irratiko esatari eta Ayestaren lagun, Unai Urreagag egingo ditu. Omenaldiaren ondoren, Behar-Zana, Uxo-toki, Zumbeltz, Iratzar eta Irintzi elkartertako bazkideek pintxoak eta edaria banatuko dituzte bertan.

Gutunak

Tolosa 2015: Basamortu Industrial

Uztailearen 27an, Tolosako Udalak Amarotz Papelera eremuko Plan Bereziari haserako onepena eman zion. Gure ustez, aipatu planak Tolosako EAJk 2003tik hona darabilen hirigintza politika oker eta ustelari jarraipena ematen dio.

Politika hori 2008an behin betiko onartu zen Plan Orokorrean gorpuzten da eta hurrengo 10 urterako aurrakusten dituen etxebizitzaren berriatik ia erdia (Gorostidi-Voith, Tolosana eta Amarotz Papelera) orain arte industria jarduerara zuzenduriko lurzoruan eraikiko da.

Horrek, Tolosarentzat dakarren aberastasun eta lanpostu galeraz gain, ezinezko egiten du etxebizitzaren berriak tolosarron benetako beharretara egokitzea eta egoitzarako auzune berriek gutxienezko bizi kalitatea bermatzea. EAJren politikak Tolosako industriaren erabateko desagertzea dakar, herriko langileak, zortea dutenean, inguruko herrietara, Ordiziara, Donostiara joan behar dutelarik lanera. Tolosako ekonomia erabat zerbitzuetara eta turismoa fidatzen da, hori bai, Michelin gidako izarrak medio, eta ekonomia eredu desorekatu eta oso arriskutsua bultzatzen da.

Gainera, gure Udal Gobernuaren industria politika okerra tolosarrok ordaindu behar dugu, edo zehatzago, Tolosan etxebizitza beharra dutenek. Aipatu industriaren lekualdatzearen aitzakian, etxebizitza dentsitate onartezinak, kokapen ulertezinak eta salmenta prezio neurrigabeak onartzen dira, hirigintzaren gutxienezko logikari bizkar emanez.

Bitartean, Alde zaharra hutsik eta berpizteko inolako inbertsiorik gabe, Laskorain-goikoan (San Esteban) etxebizitza politika benetan soziala eta aurrerakoia egi-

teko aukerak kajoji batetan ezkurturik, eta lurzoru industrial berria sortzeko gure mendiak eta nekazal lurrak etengabe erasotak.

Gure ustez, Amarotz Papelera ko lurzoru ez da batera egokia etxebizitzak eraikitzeko eta era-bilera industrialia mantendu beharko luke. Noski, orduan lurzoruaren balioa txikiagoa litzateke eta norbaitek papeleraren lekualdatzea ordaindu beharko zukeen. Baina, zergatik ordaindu behar ote dute etxebizitza erosleek papeleraren lekualdatzea? Zergatik erabiltzen da etxebizitza beharra (eskubidea) politika industrialia finantzatzeko? Gure ustez, ez da bidezkoa. Industria politika Industria Sailaren bizkar egin behar da, eta ez Etxebizitza Sailaren bizkar.

Norbaitek aztertu al du Amarotz papelerako etxebizitzek eta espazio publikoek zenbat orduz jasoko dituzten eguzki izpiak urtean zehar? Ba al da Tolosan leku ospelagorik, etxebizitzak egiteko desegokiagorik? Zein hirigintza eredu da hau?

Aldi berean, Plan Orokorra aurrakusten duen industria lurzoru berriak lur mugimendu itzelak eta urbanizazio gastu ikaragarriak beharko ditu. Zertarako, Amarotz papelerako lurzorua industriarako egokia bada eta presaturik badago?

Orain arte, gainera, jarduera industrialaren balizko jarraipena benetako pelotazoak zuritzeko aitzakia hutsa izan da, behin dirua hartuta jarduera horiek ez baitira kokapen berrian inoiz abian jarri. Adibideak ugari: Papelera Tolosana, Etxezarreta, Salvadora, San Jose, eta abar. Dirudienez, Amarotz papelerari hasi da Legorretan lanean. Luzerako izan bedi.

Antton Izagurre, Eider Elduainen, Hektor Espin eta Silvana Ostiza (ezker abertzaleko hautetsiak).

Tolosa.

Frontoiko lanetatik eskolaz kanpoko kirola kalebeheran eta eskolan

Alegia » Urriaren 5ean eskolaz kanpoko kirolak hasiko dira. Behin behineko kokalekua izango dute lanak bukatu bitartean.

ERREDAKZIOA

Alegiako kiroldegian, obrak bukatzeko, azken ukituak falta direnez, kalebeherako frontoian eta eskola izango dituzte kirol jarduerak.

Kalebeherako frontoian, pala eta euskal pilota emango dira. Eus-

kal Pilota, astearte eta asteazkenetan izango da. Asteartean, 16:00etan hasi eta 18:00ak arte ariko dira. Asteazkenetan berriz, ordubeteko saioa izango dute, 17:00etatik 18:00etara.

Astelehenetik ostegunera izango den kirol-multzoa, eskolan egingo dute. Astelehen eta ostegunetan, 16:00etatik 18:00etara eta astearte eta asteazkenetan, 16:00etatik 17:00etara izango da. Urriaren 5ean hasteakoak dira, eskolaz kanpokoak diren kirol hauek.



Monumentu izendapena lortuko balu eraikina beraren eta bere inguruaren babesa lortuko luke udaletxeak. A. IMAZ

Udaletxeak kultur-ondarearen monumentu izendapena lor dezake

Berastegi » Hil honetan jakingo dute izendapena izango duen ala ez; bailara suspertzeko baliagarria izango dela diote.

REBEKA CALVO

Berastegiko udaletxeo eraikinak Euskal Kultur-Ondarearen Inbentario Orokorreko monumentu mailako izendapena lor dezake. Pasa den uztailearen 27an egin zuen eskaera Kultura, Gazteria eta Kiroletako kontseilariordeak, Antonio Rivera Blanco, eta bertan eraikina beraren babesa eskatu zuen eta baita inguruarena ere, horrela eraikinaren «izaera propioa» ere babestu ahal izateko.

Gaur egun, hala ere, udaletxea erabat hondatuta dago eta hori dela eta eraikinaren laurdena bakarrik erabiltzen dute, «kanpotik sendoa ematen badu ere, barrutik egurra da nagusi eta oso hondatuta dago urteen poderioz», argitu du Aitor Lizartza alkateak. Hau dela

» UDALETXEA

- **Eraikuntza.** 1699-1734.
- **Diseinua.** Martin de Zabaleta eta Martin de Etxeberria.
- **Hargina.** Cristobal Larzazabal.
- **Zurginak.** Domingo Garciaarena, Martin Saizar, Mateo Aranalde, Jeronimo Elizondo.
- **Armarria.** Domingo de la Sotarena, Iruñeakoa, 1730.
- **Erlojua.** Pablo Etxeberria, 1745.
- **Udaletxearen funtzioak urteetan zehar.** Espetxea, 20 metro koadroko bi solairu dituena eta Udaletxea baino lehen eraikia, upategia, alondegia, zalditegia...
- **Berezitasunak.** Gipuzkoako udalerririk gehienetan ez bezala, Udaletxea elizatik urrun dago, dirudienez, herriko Kontzejuaren eta elizaren babesle ziren herriko Jauntxoaren arteko tirabirengatik egin zuten Elizatik urrun. Herriko lehen aipamena 1027. urtekoa da.
- **Aberastegi.** Aspaldian tokia Aberastegi bezala ezagutzen zen, bertan ez zelako ur, egur nahiz jarnaririk falta.

eta, zerbitzuetako asko kanpoan eskaini behar dituzte nahiz eta udaletxeak guztira 2.300 metro koadro baino gehiago dituen. «Urteetan barrutik moldatua ere izan da, bota behar ez diren paretak bota dituzte... zaharberritzea behar du», gaineratu du alkateak.

5.000.000 euro inguruko zaharberritze plana

Zaharberritze plana erabat finkatuta badaukate ere oraindik ez dira ezertan hasi, izan ere diru laguntzen zain daude, lanak oso garestiak izango baitira.

Guztira 4.327.819,71 euroko zaharberritze lanak egin nahi dituzte, bertan herriko plazaren berritzea ere sartzen delarik. «Izendapen honek ere dirua biltzeko lagungarri izango delakoan gauden», esan du Lizartza.

Zaharberritzen lanak bukatuta sotoko solairua, beheko solairua, beste bi solairu eta teilatupekoa izango ditu udaletxe berriak. Eraikinean Udaleko ohiko jarduerentzat beharrezkoak diren azpiegi-

turak biltzarekin batera, bailara eta Leitzarango turismoa suspertzeko turismo bulegoa ere jarriko dute, bertako nekazal produktuak saltzeko gunea... «Leitzaran ezagutzera eman nahi dugu, honekin batera San Martin Tour-sekoaren eliza ere badugu, jauregi dorretxea, ermitak...», nabarmendu du Lizartza.

Zehazki Leitzaran naturguneko baloreak bultzatzeko, bailarako nekazal turismoa suspertzeko, Plazaolako ibilbide berdea aberasteko eta Gipuzkoako turismo estrategiak bideratzeko asmoa du Udalak.

Zaharberritze lanak, datorren urtean

Eusko Jaurlaritzak hil honen bukaeran esango die izendapena onartu duten ala ez eta zaharberritze lanak datorren urtean hasi nahi dituzte. Udaleko arduradunek lanak 30 hilabeteetan bukatuko direlakoan daude.

Udaletxearen eraikinari monumentu izendapena ematearena Udalaren beraren proposamena izan zen eta horretarako Aranzadi zientzia elkarteari azterketa bat egiteko eskatu zitoten.

Aurrealdea harlanduz egina dago eta euskal udaletxe tipikoaren arkitektura du. Eraikin barrokoa da eta arkupean frontoi txiki antzeko bat dago. Barrualdeari dagokionez, zurezko egitura du; solairuetako oholzak eta karrerapeko zurezko kosetoidura dotorea mantentzen ditu. Ondoen dagoen gela areto nagusia da.

Armarria

Izendapenaren eskaeran, era berean, bigarren solairuan dagoen armarriria aipatzen dute. Armarririaren inguruan *Año de 1321. Armas de esta ilustre Villa de Berastegi* jartzen du eta *Noblezza con libertad* eta *1731* irakurri daiteke.

Armarriaren polikromia «deigarria» eta bere tamaina ere nabarmentzen dituzte. 1730. urteko Domingo de la Sotaren armarriria da eta bere gainean dagoen erlojua, aldiz, Pablo Etxeberriak egindakoa da 1945. urtean.

Eraikina bera, 1699 eta 1734. urteen artean egin zuten eta diseinua Martin de Zabaleta eta Martin de Etxeberriak egin zuten. Hargina berriz, Cristobal Larzazabal izan zen, 1703. urtean lan istripuan hil zena, hain zuzen.

L Laburrak

Iker Goenagaren kontzertua, gaur

ZIZURKILU » Zizurkilgo Iker Goenaga trikitilariak bere azken diskoa, *...ar-teraino*, aurkezteko kontzertu gira hasiko du gaur. Lehen kontzertua herrian bertan eskainiko du, Atxulondon 20:00etan, eta lehen kontzertua izateagatik baino, etxean eskaintzeagatik «urduriago» egongo dela ere aitortu du musikariak. Diskoak 13 kanta biltzen ditu eta bere zigilu propioarekin atera du, *Ez Dakienak Baleki*.

Antzerkia izango da bihar udaletxeo areto nagusian

ORENDAIN » Dar-Dar antzerki taldeak umeentzako *Egizu lo, tartalo!* lana eskainiko du bihar, 16:00etan Orendaineko udaletxeo areto nagusian. Aktoreak Maite Franco eta Asier Zinkunegi dira eta istorioa kontatzeko buruhandiez eta itzalez baliatuko dira. Helburua umei Tartalo pertsonaia mitologikoa ezagutaraztea da.

Kirol Astea antolatzeo bilera egingo dute

ANOETA » Anoetako Udalak Kirol Astea antolatu nahi da azaro hasieran eta egitaraua antolatzeo bilera egingo du asteartean 19:00etan udaletxean bertan. Bestalde, azaroaren 25ean Bortizkeria Sexistaren aurkako eguna dela eta, ekintza batzuk ere antolatu nahi dituzte eta horretarako bilera egun berean izango da, asteartean, 18:00etan udaletxean. Udalak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu bileretan parte hartu eta ekarpenak egitera.

Halterofiliako Euskadiko 15. urte azpiko txapelketa

VILLABONA » Gaur, 16:45etik aurrera, Halterofiliako Euskadiko 15. urte azpiko txapelketa izango da Villabonako Olaederra kiroldegian. Bertan Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako taldeek hartuko dute parte eta Villabonako Danena taldea ere izango da Gipuzkoako selekzioarekin batera. Aurreko asteburuan Gipuzkoako 15. eta 17. urte azpiko txapelketa izan zen eta Danenak 19 domina eskuratu zituen.

2000E PLANAREN MEMENTOA DA CITROËN MEMENTOA DA



CITROËN C4
HDi 11.600€tik



CITROËN C3 | C1 GAMA
7.300€tik | 6.200€tik



CITROËN XSARA PICASSO
HDi 12.800€tik



CITROËN C4 SEDÁN
HDi 15.800€tik

CITROËN KONFIDANTZAZKO PLANA: LANGABEZI ESTALDURA OPARI
ETA GAINERA %0ko Matrikulazio Zerga: C1 | C2HDi | C3HDi | C4HDi 90/110 FAP/110 CMP FAP



CITROËN préfère TOTAL

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIALGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA

E Elkarrizketa

XABIER PEÑALBER Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoa

«Marseillako elementuak aurkitu ditugu Basagainen»

Anoeta » Xabier Peñalber arkeologoa Basagainen ibili da lanean. Ikerketa lanak etetea «akats larria» izango litzatekeela uste du Aranzadiko kideak.

ASIER IMAZ

Duela 14 urte baino gehiago izan zen guztia. Laskorain Ikastolako irakasle batek, Koldo Oriak, Anoetako Basagainen zerbaite egon zitekeela pentsatu zuen. Aranzadi Zientzia Elkartek hartu zuen orduan lekukoa. Irakasleak arrazoia zuen, herri txiki baten aztarnak aurkitzen ziren Basagainen. Ikerketek hasiera 2.500 urte gehiago atzeratu zuten, Burdin Aroraino eramanez. Xabier Peñalber (Donostia, 1952) bertan aurkitzen da indusketa lanetan.

14 urte daramatzazue indusketa lanetan, baina urtean 15 egunetan bakarrik egiten duzue lan hemen. Nahikoa al da?

Ez, ez da nahikoa. 12, 15 edo 20 lagun gabiltza bi hektarea dituen herria ikertzen. Lur eremu handi honetan, balio handiko pieza txikiak aurkitzeko, baliabide egokiaz-

«Denbora eta batzutan jende gehiago ere beharko genuke Basagainen»

goak behar dira. Ongi aztertuz eta astiro egin behar izaten dira gauzak horrelako lekuetan, emaitzak lortu nahi izanez gero. Denbora eta batzutan jende gehiago ere beharko genuke.

Laguntza ekonomikoak handiago izan beharko lukeela uste duzu?

Ez dut uste aldarrikapenek bide horretatik joateko gaia denik. Leku batzuen aldeko apustuak garbia izan behar du, bere garrantziagatik. Hori argi izanez gero, lan egiteko baliabide gehiago behar direla ikustea ez da zaila.

Basagainen garrantziak apustu hori eskatzen al du?

Nire ustez bai. Gipuzkoa mailan oso garrantzitsua da aurkitu diren beste hainbat herriekin batera: Oriak bailararen barnean Andoain-en Buruntza dago; Anoetan Basagain; Albizturren Intxur eta Murumendi Beasainen. Duela



Xabier Peñalber zutik, Sonia San Jose eta Eloisa Uribarriekin. A. IMAZ

2.500 urteko herriez hitz egiten ari gara.

Eta nolakoak ziren herri horiek?

Aurkitu ziren lehen elementuen arabera abeltzaintzatik eta burdina lantzetik bizi ziren herri haue-tako biztanleak. Baina denak artzainak zirela uste zenean, nekazaritza arrastoak ere agertu ziren,

esate baterako zerealak. Basagainen nire ustez oraindik eta garrantzi handiagoa dauka: herri hau harresi batez inguraturik zegoen; ingurune guztia bikain ikusten da bertatik: Oriak bailara, Ernio inguru eta baita kosta ere; eraikuntza materialak aurkitu ditugu; burdinezko eta brontzezko piezak; bur-



Basagain eremuaren zati bat. Bertan indusketa lanetan boluntarioak. A. IMAZ



Liburuko pultseraren zati berdina aurkitu dute aurten Basagainen. A. IMAZ

din kantitate handia, herrian bertan lantzen zuten seinale... eta hori gutxi balitz, apaindutako estela bat agertu zen iaz. Etxeen inguruan azaldu izana eta ez hilerrian, iker-tu beharreko gauza bat da.

Urruneko merkataritzaren teoria hortik atera duzue, ezta?

Teorian, herri txiki hauek oso primitiboak ziren. Baina hori gezurra dela ikusi dugu: metalurgia, nekazaritza, bizilagunen arteko merkataritza... eta ez hori bakarrik, aurtentzen berezi bat aurkitu dugu: zeltiar kulturaren lortzak dituen lepoko baten zati bat, Marseilla inguruan aurkitzen zena. Liburuetan ikusten denaren berdina da, kristal urdinezkoa eta zeltiar irudiek. Honek bizilagunen arteko merkataritza baina haratago ematen du teoria hori. Orain artean, berrikuntza guztiak Ebro bailaratik sartu zirela pentsatzen zen, baina aurkikuntza hauen arrastorik ez dago bide horretan. Gironan bai, baita Pirinioen iparraldeko hainbat puntu desberdinetan ere. Zer esan nahi du honek? Ebroz gain, merkataritza Pirinioen iparraldean aurkitzen den bide zabaletik egiten zela. Mediterraneo Akitaniara eta hemendik Iruñen bitartez, Gipuzkoa barrena.

Nortzuk zabilzate indusketa lanetan?

Aurten Sonia San Jose eta Eloisa Uribarri arkeologoenekin batera, arkeologiako ikasleak ibili dira, baita arte ederretako baten bat ere. Baina denak argi dute lan honetan jarraitzeko bokazioa, nahiz eta boluntario lanetan ibili diren.

Jarraipenik edukiko al dute indusketa lan hauek?

Gipuzkoako Foru Aldunditik etorri ziren aste hasieran lekua ikustera. Garrantzi handia duen gunea dela esan genien, emaitzak ere maila berekoak direlako. Indusketekin jarraitzeko, apostu bat merezi duen lekua da Basagain. Baliabide gehiagorekin egiten baldin badira hobe, baina gutxienez jarraipena nahiko genuke; lanak etetea akats bat litzateke. Baina ikusiko da.



Peñalberrekin. A. IMAZ

Peñalberrek Anoetako Udalak egindako lana «eredugarritzat» jo du

Basagainen 14 urte daramatzate lanean arkeologoen eta boluntarioen. Urte horietan Anoetako Udalaren laguntza «eredugarria» izan dela aipatu nahi izan du Xabier Peñalberrek: «Beti lo egiteko lekua jarri izan digute. Aurten ordea, horretaz gain, hiru asteko ikerketa lana egiteko diru laguntza eman digute. Kostu orokorraren bi herenak ordaindu ditu Anoetako Udalak, beste herena Diputazioak jarri du».

Udal txiki batentzat esfortzu handia dela badaki Peñalberrek, horrekin batera hasieratik egindako lana azpimarratu nahi izan du arkeologoak: «Beti esan izan dut Anoetako Udalaren ahalegina eredugarria izan dela. Hasiera batean, Foru Aldundiarekin elkarlanean, lur sail hau erosi zuen. Orduan pinudia zegoen eta kontrolaturik atera zuten pinua, lurrak kalterekin jasan ez zezan. Ondoren, gurekin batera, ehiztariak kontzientziatu zituen, bertako postuak urrunago kokatzeko. Armarrria bera ere birmoldatu zuen, Basagain herriaratu; merezi duen protagonismoa emana».

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Su egurra.** Su egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetrotara moztea. Etxera eramaten dugu. Harremanetarako telefono zenbakia: 615 75 57 62.

LANA

■ **Garbitzailea.** Ibarra Sendi Ekintza Elkarteko bazkideei zuzenduriko oharra: Elkarteko sagardotegirako garbitzailea behar da. Lanpostua eskuratzeko bete beharreko baldintzak ondorengoak dira, elkarteko kide edo kideren baten bikotea izatea da. Lanpostu

honetan interesaturik dagoenak, urriaren 11aren aurretik, juntakideren batekin harremanetan jarri edo elkartearen buzoian bere izena eman behar du.

■ **Zaintzailea.** Tolosan arratsaldeetan hiru ume zaintzeko emakume euskaldun bat behar da. Harremanetarako telefono zenbakia: 630 98 43 00.

■ **Bigi Garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. 638 94 46 04 (Gurutze) edo 695 70 82 71 (Belen).

